

IKASTETXEKO HEZKUNTZA
PROIEKTUA ZUMADIA ESKOLA
Aurkibidea



SARRERA

1. ARAUDIA

2. TESTUINGURUA

3. IDENTITATE ARDATZAK

- Inklusioa eta berrikuntza, ardatz nagusiak.
- Eskola abegikorra eta segurua.
- Gizarte eta ingurumenarekin konprometitua.
- Eskola demokratikoa eta partehartzailea.
- Euskaratik eleaniztasunera. Euskal kultura, gure sustraiak.

4. CURRICULUMAREN ZEHAZTAPENA

- Identitate ardatzekin lotutako helburu orokorrak. • Ildo

pedagogikoak, hezkuntza proiektuaren oinarriak. **5.**

ESPAZIOAK ETA DENBORAK

- Gure espazioak
- Ikastetxearen antolaketa: taldekatzeak

- Denborak
 - Eskolako ordutegia. Kontziliazioa.
 - Eskolaz kanpoko ordutegiak

6- ESKOLA IREKIA, ESKOLA BIZIA

- Harrera: ikasleak, familiak, irakasleak
- Hezkuntza komunitatea parte hartzeko bideak
- Barne komunikazioa
- Kanpo komunikazioa

7. PLANAK ETA PROGRAMAK

- Bizikidetzara Araudia eta Bizikidetzara Plana
- Tutoretza Plana
- Hezkuntza Orientazio Plana
- Aniztasunari Arreta Emateko Plana
- Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua
- PROEDUCAR-HEZIGARRI programa
- Hezkidetzara Plana (SKOLAE programa)
- Irakasleen formakuntza

8. IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

Sarrera

“Eskolak leku ederra izan behar du, kultura, musika edo artea arnasteko modukoa, atsegina eta eroso. Ezagutzaren, trebetasunen eta gaitasunen ondarean eraikitzeko ezinbestekoak diren oinarriak, motibazioak eta kultura-ereduak mundu guztiari eskaintzeaz arduratu behar du. (Francesco Tonucci)

Zumadia Eskola Haur eta Lehen Hezkuntzako zonaldeko ikastetxe publikoa da, D eredukoa, Abartzuzako udalerrian (Nafarroa) kokatua dagoena. Zumadia eskola 2019-20 ikasturtean sortu zen, bi landa-eskolek -Abartzuza eta Lezaun- bat egin eta Gesalatz eta Deierri bailaretako ikasleak ere hartuz. Gainera, gure komunitatearen parte izan nahi duten zonaldeko familia guztiei irekita dago.

Gure eskola herritarren, eskolen eta udalen eskaera prozesu luze baten emaitza da, jakitun baikara inguruko landa eskola batek balio handia duela familientzako ezinbesteko dotazio gisa eta haurrak beren herriekin eta ingurunearekin lotuta eta identifikatuta egotea bermatzen duen tresna gisa.

Tokiko eskolak zonaldeko ikastetxe bihurtzeak ikastetxeko hezkuntza proiektu moderno eta berritzailea birpentsatu eta diseinatzeko aukera eskaini digu, bi eskolen ibilbide komunean oinarrituta eta honako balio hauek sustatuta: errespetua, elkartasuna, espiritu kritikoa, parte-hartze demokratikoa, konpromiso soziala eta ingurumenekoa, bai eta euskal hizkuntza eta kulturarekiko maitasuna ere.

Zumadian familiek eta eskolak **elkarrekin lan egiten dugu, haurrak beren osotasunean garatuko diren pertsonak izan daitezen, konpetenteak, euskaldunak eta gizartearekin eta ingurumenarekin konprometituak.**

Eredu bat proposatzen dugu, non ikas-irakas prozesuaren ardatza ikasleak, haien interesak eta indibidualtasunak diren, garapen pertsonalaren dimentsio kognitiboak, fisikoak, emozionalak eta sozialak kontuan hartuta. Ikasleak beren ikaskuntza prozesuaren eragile aktibo eta protagonista bihurtzen dira, berdinekiko interakzioaren bidez, ikaskuntza esanguratsua eta sakona lortzeko.

Profesional talde txiki eta trinkoa gara, etengabe formatzen ari gara eta berrikuntza pedagogiko eta teknologikoari irekita gaude. Hezkuntza proiektuaren garapena hezkuntza komunitateko kide guztien elkarrekintzaren eta elkarlanaren emaitza izan behar dela uste dugu.

Hezkuntza proiektu honek hezkuntza komunitateko kideen arteko lankidetzeta eta ikastetxearen eta gizarte-ingurunearen arteko harremana sustatzen lagundu nahi du. Egungo eskola-testuinguruaren ezaugarri sozialak eta kulturalak kontuan hartzen ditu, eta hezkuntza prozesua antolatzeko oinarritzko ardatzak proposatzen ditu.

1. Araudia

LOMLOEren 120. artikulua arabera (3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena), ikastetxeek autonomia pedagogikoa, antolamendukoa eta kudeaketakoa dute. Autonomia horren barruan, ikastetxeek hezkuntza proiektu bat egin, onartu eta gauzatu behar dute, 121. artikuluan garatzen den edukiarekin.

Autonomia pedagogikoaren barruan, Zumadiako hezkuntza komunitateak dokumentu hau landu eta hausnartu zuen 2019-2020 ikasturtean.

2. Testuingurua

Zumadia eskualdeko landa eskola bat da, Lizarrako merindadean dagoena, Abartzuzan. Egungo Eskola-maparen banaketari jarraituz, ikasleak honako herri hauetatik datoz (2019/20ko datuak):

- Abartzuza: 538 biztanle.
- Lezaun: 241 biztanle.
- Gesalatz bailara: 450 biztanle (kontzejuak: Arguiñano, Estenotz, Garisoain, Genbe, Irurre, Iturgoien, Izurtzu, Lerate, Muetz, Muniain, Bidaurre, Arzotz, Irujo, Muzki eta Biguria).
- Deierri bailara: 1.542 biztanle (kontzejuak: Allotz, Arandigoien, Aritzala, Arizaleta, Azkona, Bearin, Eraul, Gorozin, Ibiriku, Iruñela, Lakar, Lorka, Murelu, Murugarren, Errezu, Ugar, Hiriberri, Zabal eta Zurukuain).

Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatzen duen uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuaren arabera (azken Eskola-mapa), Arandigoien, Bearin, Lorka eta Murelu Deierri herriak ez dira eskolaren eremukoak.

Eskolako familia ia guztiak herri txiki hauetatik datoz, baina Lizarrako ikasleak ere badaude.

Hainbat herritako ikasleen jatorriak eskola aberasten du eta tokiko historia, toponimia, ohiturak, jaiak etab. ezagutu eta ikertzeko aukera zabaltzen du.

Gurasoen okupazio mota askotarikoa da: lehen sektoretik (nekazaritza eta abeltzaintza) –askotan industriarekin batera–, zerbitzuen sektoreraino (nekazal turismoa, administrazioa, osasuna, garraioa, hezkuntza, etab.).

Aniztasun handi horrek izugarri indartzen du eskolako bizitza, eta aukera asko eskaintzen dizkigu ikaskuntza aberatsa eta bizipenezkoa egiteko (gurasoak eta inguruko jendea proiektu desberdinetan “aditu” gisa; nekazaritzako ustiategiak, granjak, tailerrak, upategiak, industria txikiak etab. in situ bisitatu eta ezagutzeko aukera, etab.).

Gainera, familiekin eta inguruko jendarekin dugun gertuko harremanak aukera ematen digu belaunaldien arteko truke eta lanari ekiteko. Lan honi balio handia ematen diogu.

Inguruneari lotutako curriculuma osatzeko, eskola testuinguru natural batean kokatzen da, naturarekin eta naturan ikasteko aukera ematen diguna.

3. Identitate ardatzak

Gure identitate ardatzak:

- Euskaratik eleaniztasunera. Euskal kultura, gure sustraiak.
- Inklusioa eta berrikuntza.
- Hezkidetza.
- Eskola abegikorra eta segurua.
- Gizarte eta ingurumenarekin konprometitua.
- Eskola demokratikoa eta partehartzailea.

Euskaratik eleaniztasunera. Euskal kultura, gure sustraiak.

Gure eskola D eredukoa da, **euskara komunikazio eta ikaskuntza hizkuntza** duen murgiltze eredua. Eskolaren helburu nagusienetako bat kalitatezko hezkuntza euskalduna garatzea da.

Ilido horretan, eskolako barne bizitza euskaraz garatzeko eta, era berean, **euskal kultura transmititzeko gunea** izateko lan egiten dugu (ospakizun tradizionalak:

Olentzero, Inauteriak, Gau Beltza, Korrika, etab., baita literatura, musika, artea, bertsolaritza, kirolak, etab. ere).

XXI. mendeko gizarte globalizatuan, helburu hori beste hizkuntzekin, gaztelaniarekin eta ingelesarekin, osagarritasun-planteamendu batekin osatzen da. Horregatik, gure ikasleak euskaldunak eta eleanitzak izan daitezen lan egiten dugu. Helburua da ikasleek Nafarroako bi hizkuntzak, euskara eta gaztelania, menderatzea, eta ingelesa atzerriko hizkuntza gisa erabiltzea.

Ikastetxeko Hizkuntz Proiektuak hezkuntza proposamen bat garatzen du, euskara hizkuntza nagusia izanik, hizkuntzen arteko loturak eta interakzioak sortzen dituen eta hizkuntza-gaitasunak zeharka lantzen dituen, metodologia komunikatiboa erabiliz.

Inklusioa eta berrikuntza.

Zumadia eskola **inklusiboa** da, **ikasle guztien gaitasunak ahalik eta gehien garatzea helburu duena**. Ikasle guztien aniztasuna onartzeak eta guztien ikaskuntzaren kalitatea hobetzeko aukerak bilatzeak berrikuntzara garamatza. Horrela bada, berrikuntza, eskolako haur guztien ikaskuntza premiei eta aniztasunean ikasteko aukera berdintasunari erantzun gisa ulertzen dugu. Jakinda ere, inklusioa ez dela ematen hezkidetzaren bermatu gabe.

PROEDUCAR-HEZIGARRI programan parte hartzen dugu, **ikasle guztien inklusioa lortzeko berritzen laguntzen diguna**.

Ikasle guztien presentzia, parte hartzea eta lorpenak sustatzen dira ikasgelan, ikastetxean, jarduera osagarrietan eta eskolaz kanpoko jardueretan, ikasle guztiei ikasteko aukerak eskainiz.

Benetako eraldaketa soziala lortzea ahalbidetzen digun oinarrizko eskubidetzat hartzen da hezkuntza.

Ikastetxean egiten ditugun proposamen berritzaile eta inklusiboak:

- Euskararen ikas-irakaskuntza komunitarioa.
- Ikasgela barruko laguntzak, ez espazio fisiko gisa, estrategia metodologiko gisa baizik.
- Irakaskuntza partekatua ikaskuntza bultzatzeko. Ikasle guztiei laguntzeko ikasgelan bi irakasle aritzen dira elkarlanean, haien indarrak bikoizten dituen ekipoa sortuz.
- Maila anitzeko gelak, gure identitatearen parte direnak.
- Hipergelak, espazioak ireki egiten dira eta gela batek baino gehiagok elkarrekin egiten du lan. Zenbait irakaslek espazioak eta taldeak partekatzen dituzte, arreta kolektiboa eta banakakoa aldi berean emanez, espezialitate desberdinak eta indargune osagarriak bateratuz eta jarduera lagunduta eta lasaia sortuz.
- Ikas giroak, espazioaren eta materialen antolakuntza eraginkorra, ikaslea bere irakaskuntza prozesuan protagonista izateko. Mikroespazioak eta txokoen proposamenek, ikasle guztiei erantzun inklusiboa ematen laguntzen dute.
- Proiektu Bidezko Ikaskuntza / Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza.
- Patio inklusiboa.
- Asanbladak: esperientziak partekatzeko, elkar ezagutzeko, erabakiak hartzeko, denborak planifikatzeko eta autoerregulaziorako laguntza gisa.
- Kudeaketa emozionala, nor bere burua ezagutzeko eta inguruan ditugun pertsonak ezagutu, baloratu eta ulertzeko.
- Lan kooperatiboa (Lehen Hezkuntzan).
- Irakurketa dialogikoak (Lehen Hezkuntzan).
- Talde interaktiboak, komunitateko kideek gelako lanean parte hartzea. ●
Zerbitzu-ikaskuntza , inguruan eta komunitatean eragiteko.

Zumadia eskolak hezkidetza du oinarri, benetako ikaskuntza inklusiboa bermatzeko.

Skolae programan parte hartzen dugu, irakasle bakoitzaren formakuntzaren bitartez, berdintasuna bermatzen duen espazio eta sistema bat eraldatzeko norabidean.

Kanpo eta barneko espazioak, materialak, ospakizunak, dokumentazioa eta egunerokoak eraldatzen ari dira, hezkidetzaren bitartez, berdintasunezko sistema bat sortzeko.

Eskola abegikorra eta segurua

Konfiantza eta segurtasun giroa funtsezkoa da komunitate osoaren ongizaterako.

Eskola espazio abegikor, atsegin eta seguru izatea nahi dugu, guztiok (ikasleak, irakasleak eta familiak) **konfiantza senti dezagun geure buruarengan, besteengan eta ingurunean**. Geure burua zaintzen dugu eta besteak zaintzen ditugu. Eskolaren tamainak eta gela bakoitzeko ikasle kopuruak erraztu egiten dute helburu hau.

Ikasleak etxean bezala sentitzea nahi dugu, modu beroan hartuta: goizero pertsonalki agurtzen ditugu heltzen direnean eta agur esaten diegu joaten direnean, haurrek zapatilak janzen dituzte eskolara iristean...

Adimen emozionala eta gaitasun emozionalen garapena lantzen ditugu, ongizate pertsonala hobetzen dutelako eta, ondorioz, ikasleek hezkuntza prozesuetan arrakasta handiagoa izaten dutelako. Horregatik, ikasleek beren emozioak ezagutzeko eta kudeatzeko lan egiten da, besteenak ezagutu eta errespetatzearekin batera:

- Autokontzientzia (kontzientzia emozionala hobetzea, norberaren eta besteen emozioak identifikatzen ikasiz).
- Kudeaketa emozionala (emozioak kudeatzeko estrategiak eskuratzea eta emozioaren, pentsamenduaren eta portaeraren arteko erlazioa ulertzea). ●
- Gizarte-trebetasunak (gizarte-trebetasunak garatzea, gatazkak modu positiboan konpontzeko gai izanik, asertibitatea, erantzukizuna eta lankidetzaren praktikan jarritz).
- Ongizate pertsonala eta soziala (ongizate pertsonala sustatzeko estrategiak ikastea: erlaxazioa, yoga, mindfulness, masajeak, etab., eta empatia, ongizate soziala bultzatzeko).

Ingurune natural eta sozialarekin konprometitua: Ekohezkuntza eta Zerbitzu-ikaskuntza

• Ekohezkuntza ikastetxea

Zumadia eskolak ingurumenarekiko konpromisoa hartua du.

Eskola, bere arkitekturatik (passivhaus, energia kontsumo ia nulua) eguneroko funtzionamenduraino (energia berriztagarriak -pellet berokuntza sistema-, hondakinak murriztea, berrerabiltzea, birziklatzea, baratzeko konpostajea, etab.) ingurumena zaintzeko konpromisoaren adierazle dira.

Gure ikastetxeak jasagarritasuna integratu du pedagogia eta kudeaketa ereduari. Ingurumena zaindu nahi dugu, gure ingurune hurbilenetik hasita, hezkuntza komunitate osoaren inplikazioarekin.

Baratzea ikasgunea da, haur guztientzako beste ikas giro bat, eta familien eta inguruko jendearen laguntza dugu ezagutza tradizionalak eta laborantza modu berriak integratzeko.

Eskola natura bete-betean dago, eta horrek aukera ematen du kanpoan lan egiteko eta ikertzeko. Ingurune natural hurbilaz gain, eskolaren kanpoko espazioa habitat txiki bihurtu nahi dugu, izaki bizidunen arteko elkarrekin eta naturaren zikloak bizi ahal izateko, produktuak egin eta kontsumitu arteko prozesuak esperimentatzeko, etab.

Gure helburua da eskolako jangelako elikadura bat etortzea planteamendu horiekin, eta zonaldean ekoiztutako elikagaien kontsumoa sustatzea (0 km), sasoikoa eta, ahal den neurrian, ekologikoa.

Horrez gain, ingurumena babestearekin eta jasagarritasunarekin lotutako tailer eta proiektuetan maiz parte hartzen dugu.

• Zerbitzu-ikaskuntza

Hezkuntza eskolaren, familien eta komunitatearen arteko erronka partekatutzat hartzen dugu. Eskola eta komunitatea konektatuta daude:

Komunitateak eskolan parte hartzen du (talde interaktiboak, tailerren dinamizazioa, "aditu"-ak proiektuetan, festak, batzordeak, etab.) eta Zumadia eskolako proiektu pedagogikoaren parte aktiboa da. Komunitatea eskolan sartzen da.

Bestalde, eskola inguruneari irekia eta lotuta dago. Zerbitzu-ikaskuntza, ikaskuntza

akademikoa eta komunitatearentzako zerbitzua proiektu bakar batean integratzen ditu. Inguruko benetako beharren inguruan lan egiteak, ikasteko aukera ematen die haurrei, hura hobetzeko asmoz. Ikasleen gaitasun kritikoa eta elkartasuna indartzen ditu, eta eskolako hezkuntza proiektua aberasten du.

Eskola demokratikoa eta parte hartzailea

Zumadia eskola demokratikoa da, hezkuntza komunitatea osatzen duten pertsona guztiek elkarrizketarako eta interakziorako espazioak eta denborak bilatzen dituzte, lankidetzarako konpromiso komunak ezarriz; norbanakoen askatasunak errespetatzen dira, berdintasunaren eta komunitatearen aldeko apustua eginez.

Eskola demokratikoa eraikitzeko ezinbesteko baldintza da **hezkuntza komunitateko sektore guztiek parte hartzea**.

Familiek eta komunitateko beste eragile batzuek funtsezko eginkizuna dute eskolan, irakasleekin helburuak partekatuz eta batera lan eginez. Hala, familiek ateak zabalik dituzte irakasle-taldearekin lankidetzan aritzeko eta talde interaktiboetan, tailerretan, proiektuen garapenean, irteeretan eta jardueretan, materialak sortzen eta abarretan parte hartzeko. Horrez gain, gainerako gurasoekin batera parte har dezakete Guraso Elkartearen hainbat batzordetan: jantoki-garraioa, eskolaz kanpoko jarduerak, euskara, festak, etab. Familiek, beren ordezkarien bidez, ikastetxeko gobernu-organoetan ere parte hartzen dute.

Irakasleek, halaber, ikasleek beren ikaskuntza prozesuan eta ikastetxean erabakiak hartzen parte har dezaten lan egiten dute (gelako asanbladak, ikastetxeko asanbladak, lan-proiektuak, giroak, eta abar.). Horretarako, haurrek gai izan behar dute beren ikaskuntzak kudeatzeko eta beren portaera doitzeko (elkarrizketa sustatzea, hezkuntza emozionala, gatazkak modu baketsuan konpontzea, ikaskuntza dialogikoa, lan kooperatiboa, etab.).

Eskola demokratikoa eraikitzeko, **parte hartzea bultzatzea eta bizikidetzaren sustatzea** da gure hezkuntzaren erronka bikoitza.

4. Curriculumaren zehaztapena

Identitate ardatzekin lotutako helburu orokorrak

1. Euskara menderatzea, eskolako komunikazio eta ikaskuntza hizkuntza gisa erabiliz. Halaber, gaztelania menderatzea eta ingelesez komunikazio-maila eraginkorra lortzea.
2. Euskal historia eta kultura ezagutzea eta ingurunean garatzeko konpromisoa hartzea.
3. Proposamen inklusiboak diseinatzea, haur bakoitzaren berezitasuna errespetatzen dutenak.
4. Metodologia aktiboak erabiltzea, konpetentziak garatuko dituztenak (ikasle konpetenteak hezteko).
5. Ikaskuntza aktiboa sustatzen duten denbora eta espazio malguak diseinatzea.
 6. Mundura irekitzea sustatzen duten metodologiak erabiltzea, haurrak kritikoak eta beren gizarte-ingurunearekin konprometituak izan daitezten lortzeko.
7. Eskolako bizimodua antolatzea, haurrek naturan/naturarekin ikasi, baloratu eta bizi diren ingurune naturala zaintzeko konpromisoa har dezaten.
8. Eskola espazio libre eta berdintasunezkoa bihurtzea.
9. Eskola espazio abegikorra eta segurua izatea, guztiok (haurrak, irakasleak eta gurasoak) konfiantza senti dezagun geure buruarengan, besteengan eta ingurunean.
10. Ikasleek eskolako bizitzan parte hartzeko eta erabakiak hartzeko esparruak diseinatzea.
11. Familiek eta komunitateak eskolan parte har dezaten sustatzea.
12. Etengabeko hausnarketa pedagogikoa egitea, familiak prozesuan parte hartzera bultzatuz.

Ildo pedagogikoak, hezkuntza proiektuaren oinarriak

1. Euskara eta gure kultura oinarria dira

Euskara da komunikazio eta ikaskuntza hizkuntza. Beraz, bere ikaskuntzaren kalitatea bermatzea funtsezkoa da gure proiektuan. Gure hizkuntza, kultura eta historia ezagutu eta balioesteak sustraitzen gaitu, eta hori da proiektatzeko eta mundura zabaltzeko abiapuntua.

2. Ikasleak dira ikaskuntzaren eragile nagusiak

Ikasleak dira ikaskuntzaren eragile nagusiak, euren jarduera kognitibo, fisiko, emozional zein soziala da guztiaren ardatza. Ikaskuntzak, ikaslearen parte hartze aktibo eta eraikitzailea eskatzen du. Ikuspegi didaktikoa ikaskuntza aktibo eta autorregulatura bideratuko da.

3. Ikaskuntza pertsonalizatua da

Desberdintasuna onartzea ezinbesteko baldintza da ikaskuntza sakona egiteko: haur bakoitza bakarra eta desberdina da. Desberdintasun horiek alde aurreko ezagutzak, trebetasunak, ikasteko estiloak eta estrategiak (adimen anitzak), interesak edo motibazioak barne hartzen dituzte, eta pertsonalizazioa eskatzen dute.

4. Ikaskuntza inklusiboa izan behar da

Gelako kudeaketak haur guztien desberdintasun eta behar indibidualekiko sentikorra izan behar du. Horrela, inklusioa bikaintasunaren adierazpen goren gisa ulertzen dugu. Guztion ikaskuntza guztion alde egiten duen erantzukizun partekatua da.

5. Ikaskuntza soziala da

Elkarrekintza soziala funtsezkoa da ikaskuntzan, eta hausnarketa eta lan pertsonaleko tarteekin txandakatu behar da. Lan kooperatibo mota desberdinak, parte hartze dinamikak (asanbladak, eztabaidak, elkarrizketak...) eta ikaskuntza dialogikoa, oso presente daude. Elkarlan-kulturak zein komunitatearekiko loturak, berebiziko garrantzia dute.

6. Emozioak ezinbestekoak dira ikasteko

Emozioa, motibazioa eta kognizioa elkarri lotuta daude. Alderdi afektiboak, ongizateak eta norbere konfiantzak, zeregin erabakigarria dute ikaskuntzan. Hori dela eta, denen egoera emozionala zaindu eta kontutan hartzen dugu.

7. Ikaskuntzak ezagutza arlo desberdinen arteko lotura eraiki behar du

Ikaskuntza esanguratsua behar du izan: ezagutzak erlazionatu, benetako egoera, erronka edo arazoetan aplikatu eta uneoro transferentzia egiten saiatzen da. Ikaskuntza sakonak, ikaslearen gaitasun eta kompetentziak konektatzen ditu.

8. Ikaskuntzak gaitasun kritikoa eta sormena garatu behar ditu

Pentsamendu kritikoa eta sortzailea bultzatzen duen ikaskuntza sustatzen dugu, hala nola analisia, edonork bere potentzial osoa lortzeko baliabide gisa. Gaitasun kritikoak, sortzaileak eta analitikoak funtsezkoak dira etengabeko aldaketan ari den informazioaren eta komunikazioaren gizartean.

9. Ebaluazioa ikaskuntzaren zerbitzuan dago

Ebaluazioaren dimentsio hezigarria (ebaluazio formatiboa) nagusitzen da:

- Ebaluazioak ikasleek gehiago eta hobeto ikasteko balio behar du.
- Autoebaluazioa funtsezkoa da, ikasleek etengabe ebaluatu behar dute beren burua, beren ikaskuntza-prozesuaz jabetu daitezen. Ikasleei atzeraelikadura eta informazio garrantzitsua eman behar die banaka, autorregulazio iraunkorra sustatuz.
- Era berean, koebaluazioa, ikasle bakoitzak, prozesu dialogiko batetik abiatuta, bere buruari eta bere prozesuari buruz hausnar dezan.
- Ebaluazioak jarraitua izan behar du, prozesu osoan zehar.
- Ebaluatzea ez da kalifikatzea. Garrantzi berezia ematen diogu irakasleek egiten duten ikasle bakoitzaren hiruhileko txostenari.

10. Antolaketa, ikasketa prozesuaren zerbitzura zuzenduta dago

Eredu pedagogikoak bizitza akademikoaren alderdi desberdinak bideratzen ditu, antolamendu eredia zehaztuz: irakasleak (irakaskuntza partekatua) eta ikasleak (ikasmaila anitzeko taldekatzeak) antolatzeke formula aldakorrak, egitura malguak denboraren eta espazioaren erabilerari dagokionez, ikasgaien integrazioari, lankidetzaren lanari, hezkuntza-eragileen presentziari (talde interaktiboak) eta abarri dagokienez, ikastetxearen aukera pedagogikoekin lotutako elementuak dira.

11. Erlazioen zainketa eta komunikatzeko modua funtsezkoak dira

Ikastetxeko giroak abegikor eta adeitsua izan behar du. Funtsezkoa da komunitate osoaren ongizaterako, ikaskuntzarako, lankidetzarako, elkar zaintzeko, etab. Geure

burua zaintzen dugu eta besteak zaintzen ditugu.

12. Eskola eta komunitatea konektatuta daude

Komunitateak eskolan parte hartzen du eta eskola inguruneari lotuta eta irekia dago. Hezkuntza komunitatea Zumadia eskolako hezkuntza proiektuko parte aktiboa da. Etengabeko iragazkortasuna eta elkarlan zein inguruarekiko konpromisoa (ikaskuntza zerbitzua) berrikuntza, hazkuntza eta aberastasun iturri dira.

13. Ingurumenarekiko konpromezua hartua dugu

Ikastetxea, bere arkitekturatik hasita eguneroko funtzionamenduraino, ingurumena zaintzeko konpromisoaren adierazgarri da (passive house, energia berriztagarriak, hondakinen murriztea, berrerabiltzea, birziklatzea, baratzeko konpostajea, etab.).

Eskolako jangelako elikadura filosofia honekin bat dator, eta bertako elikagaien kontsumoa bultzatzen du (km 0), garaikoak eta ahal den neurrian ekologikoak izango direlarik.

14. Gogoeta pedagogikoa etengabea izan behar da

Eskolako ikuspegia, estrategiak eta ikaskuntza-diseinua nazioarteko proposamen teorikoetan eta ikerketa berrienetan oinarrituta daude eta, aldi berean, orain arte arrakastatsuenak izan diren ebidentziak eta ekarpenak aintzat hartzen ditu. Oinarrizko zutabeak oso sendoak izanik, hausnarketa pedagogikoa etengabea izango da. Berrikuntzaren kultura, bai pedagogikoa bai teknologikoa, Zumadia eskolaren ezaugarria da.

15. Taldean egiten dugu lan

Irakasle gozok hezkuntza proiektuaren markoa bere egiten du, taldean egiten du lan eta ardurak elkarbanatzen ditu. Hezkuntza komunitatearen partaide guztiek (irakasle, familia, sukaldari, jangela zein autobuseko hezitzaileak, garbiketa pertsonala etab.), hezkuntza-asmoa ezagutzen dute, eta lan egiten dute, formazioa jasotzen dute, eta elkarrekin ikasten dute hura lortzeko.

5. Espazioak eta denborak

Gure espazioak

Zumadia eskola eraiki berria da (2020-21 ikasturtean inauguratua), granja-eskola gisa

sortua, eta landa ingurunean erabat integratua. Solairu bakarrean eraikia, espazio handiak ditu, guztiak kanpora irekiak.

Bere diseinuak **ingurune naturalean murgiltzeko nahiari eta ikasleen arteko interakzioari** erantzuten dio. Gardentasunek, barneko eta kanpoko leihate handiek, barrualdera eta kanporantz irekitzen dute begirada. Argiak eta kolore neutro eta naturalek giro lasaia sortzen dute.

Bi espazio nagusik osatzen dute, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza, elkartzeko gune handi baten inguruan bilduta. Haur Hezkuntzako espazioak (bi gela eta arte tailerra) eta Lehen Hezkuntzakoak (hiru gela eta arte tailerra) barrutik komunikatuta daude, eta, horrela, maila desberdinetako ikasleen arteko interakzio-espazioak sor daitezke. Parte hartzea, ikaskuntza aktiboa eta berdinen artekoa sustatzen dituzten espazioak dira.

Horrez gain, erabilera anitzeko aretoa (psikomotrizitatea, gimnasioa, musika eta ekitaldi-aretoa), jangela eta sukaldea ere baditu. Ez dago oztopo arkitektonikorik eta komuna eta dutxa egokituak ditu. Begirada inklusiboak zuzendu du espazioen diseinua eta horiek guztiak haurren garapen integralean (psikologikoa, fisikoa, emozionala eta soziala) laguntzeko pentsatuta daude .

Kanpoko espazioa beste hezkuntza-giro bat da. Genero-berdintasuna eta inklusioa sustatzen dituen ikuspegi batetik diseinatuta dago. Ez dago kirol-pistarik. Haurren, familien eta komunitatearen arteko lankidetzaren prozesuan prestatzen ari da. Ere zolatua eta berdegunea (baratzeak, lorategiak, zuhaitz-mota desberdinak, etab.) ditu. Kanpoko espazioa osatzen duten elementuak, haurrek kontzepzio-prozesuan azaldu eta adierazi dituzten premiei emandako erantzunak izango dira: arriskua, mugimendua, ezkutaketa, koordinazioa, erlaxazioa, topaketa, etab. Auzolanean egin eta jarriko dira, modu komunitarioan eta elkarlanean.

Ikastetxearen antolaketa: taldekatzeak

Oro har, ikasleak bost taldetan banatuta daude: bi Haur Hezkuntzan eta hiru Lehen Hezkuntzan: (LH 1.2.), (LH 3.4.) eta (LH 5.6.). Taldeak ez dira handiak, inoiz ez 16 ikasle baino gehiago unitate bakoitzean, eta horrek metodologia aktiboak erabiltzea eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan pertsonalizazio maila handia izatea ahalbidetzen du. Mailen araberrako taldekatzeak urte bakoitzeko matrikulazioaren arabera alda daitezke.

Maila anitzeko talde hauek oso positiboak dira ikasle guztientzat:

-Haur bakoitzari bere berezitasunetik lan egiteko aukera ematen diote, bere gaitasunak, interesak, ikasteko estiloak etab. kontuan hartuta, eta bakoitzak bere maila

eta parte hartzeko modua aurkitzen laguntzen dute. Autoestimu positiboaren alde lan egiten dute eta ikasgelan aniztasunarekiko arreta ikuspegi inklusibo batetik planifikatzea ahalbidetzen dute.

-Adin desberdinetako haurren artean interakzio oso aberasgarriak eragiten dituzte, taldearen kohesioa eta taldeko kide izatearen sentimendua bultzatuz.

-Besteak zaintzea, erantzukizuna eta laneko autonomia sustatzen dituzte.

Gainera, eskolako haur guztien arteko harremana eta interakzioa bilatzen dugu, eta **etapa arteko** bizikidetzako dinamika une asko daude (bikotekako irakurketa, "kidetza", etab.), baita **eskolako ikasle guztien artekoa** ere (antzerkiak, dantzak, jaiak, etab.).

Denborak

Espazioak eta denborak malgutasunez artikulatzen dira, unean uneko beharraren arabera, ikaskuntza aktiboa sustatzeko helburuarekin. Eskolako lan-metodologiarekin bateragarriak diren denbora-blokeak diseinatzeko ahalegina egiten da.

• Eskolako ordutegia. Kontziliazioa.

Eskolak Jardunaldi malgua du: astelehen, astearte eta ostegunetan (goizez eta arratsalde); asteazken eta ostiraletan, goizez bakarrik.

Zonaldeko landa eskola denez, eskolak jangela eta garraio zerbitzua du. Haur gehienak modu mailakatuan iristen dira, eta horrek harrera eta agur pertsonalizatua eta lasaia egiteko aukera ematen du. Ikastetxea ireki egiten da garraioa erabiltzen duten ikasleei arreta emateko, eta irakasleak ditu lan horretaz arduratzeko, bai goizez, bai arratsalde.

• Eskolaz kanpoko ordutegiak

Guraso Elkarteak eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen ditu urtero, inguruko gizarte, kultura eta kirol eragileekin lankidetzan, eta jarduera bakoitzerako eskola-espazio egokienak erabiltzen ditu.

Antolatzen diren eskolaz kanpoko jarduerak garapen integralean laguntzen dute (psikologikoa, fisikoa, emozionala eta soziala), betiere genero berdintasuna bultzatuz eta ikuspegi lehiakorra saihestuz. Halaber, gure D ereduaren garapenarekin bat eginik euskaraz izanen dira.

Jarduera horiek dinamizatzearaz eskualdeko pertsonak arduratzen dira (kirolariak, artistak, musikariak, aktoreak, dantzariak, etab.), herrien arteko kohesioa eta komunitateko kideei balioa emanez.

6. Eskola irekia, eskola bizia

Harrera: ikasleak, familiak, irakasleak

Gure komunitatean bizitzen hasten diren pertsona guztiak (haurrak, irakasleak, gurasoak eta familiako gainerako kideak) adeitasunez eta errespetuz hartzen saiatzen gara. Modu berean gure proiektuaren gako-hizkuntza euskara dela adierazten diegu, helburu honekiko konpromezuan agente aktiboak izan daitezen.

Ikasleak “Harrera garaia” pertsonalizatu batean hasten dira eskolan, haur bakoitzaren emozioak, bizipenak eta indibidualtasuna errespetatuz. Garai honetan, gurasoak gertutik bizi dira seme-alaben prozesua eta eskola eta profesionalak ezagutzen dituzte; era berean, irakasleei haurrak eta haien familiak ezagutzeko aukera eskaintzen die.

Eskolan hasten diren irakasleak, halaber, taldeko gainerako kideek hartzen dituzte (Irakasleen Harrera Plana), eta pixkanaka, ikastetxeko hezkuntza-proiektua aurkeztu eta horren partaide bihurtzen dira.

Hezkuntza komunitatea parte hartzeko bideak

Eskola inklusiboa ikasle guztien, familien eta hezkuntza komunitate osoaren parte hartzea sustatzen duen eskola da. Eskola inklusiboa testuingurura, gizartera irekitako eskola da, ikaskuntza-sareak sortzen dituen, azken batean, eskola bizia.

Familiek eta komunitateko beste kide batzuek ikasleen ikaskuntza jardueretan parte hartzen dute, bai eskola orduetan, bai eskolaz kanpokoetan (talde interaktiboak, tailerrak, proiektuen garapena, irteerak eta jarduerak, materialak sortzea, etab.).

Gurasoek gobernu organo gorenean, Eskola Kontseiluan eta haren batzordeetan (Bizikidetzak, Ekonomikoa) parte hartzen dute, eta bi kidek ordezkatzeko dituzte: gurasoen ordezkari batek (lau urtean behin bozketa bidez aukeratua) eta Guraso Elkarteko ordezkari batek (bi urtean behin izendatua).

Gurasoak, Guraso Elkarteko (APYMA) kide dira, eta elkarteak aldizka biltzen da bere

batzarrean. Hainbat batzordetan parte har dezakete: jangela eta garraioa, eskolaz kanpoko jarduerak, jaiak, euskara, etab.

Guraso Elkarateak, irakasleekin koordinatuta, "Familia eskola" antolatzen du (hitzaldiak, tailer formatiboak, etab.), haien beharrei eta interesei erantzunez.

Guraso Elkarteko Batzarra urtero berritzen da eta 4. mailako ikasleen gurasoek osatzen dute. Batzordeak hilero bilerak egiten ditu zuzendaritzarekin, eskolako bizitzaren jarraipena egiteko, proposamenak egiteko, etab.

Barne komunikazioa

Barne komunikazioa gardena izatea nahi dugu. Barne komunikazio honen helburua da komunitateko kide guztiak proiektuan inplikatzeko, hezkuntza komunitatea osatzen duten guztiei informazioa gardentasunez eta erregulartasunez eskainiz.

Barne komunikazio hori aurrez aurre egingo da (bilerak, lantaldeak, klaustroak, Guraso Elkaratearekin bilerak, batzordeak, etab.), edo modu digitalean (posta, dokumentu partekatuak, blogak, web orria, etab.), gardentasuna eta eskuragarritasuna eskainiz beti.

Gela bakoitzean, irakasleen eta familien arteko komunikazio arduradun bat dago (taldeko whatsapp arduraduna).

Kanpo komunikazioa

Eskolak gardentasunaren eta irekitasunaren kultura sustatzen du kanpo komunikazioetan ere. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu udalekin eta inguruko eragile sozial eta kultural guztiekin komunikazio ona izatea, gure proiektua ezagutu eta parte har dezaten. Komunikazioa aurrez aurre edo modu digitalean egingo da.

Eskolako web orria, Facebook, Instagram, etab. izango dira kanpora aurkezteko tresnak, betiere komunitateko kide guztien, batez ere haurren, pribatutasunaren mugak eta irudi eskubideak errespetatuz.

Barne komunikazioa zein Kanpo komunikazioa ataletan, euskara izanen da harremanetarako hizkuntza. Unean uneko egoera soziolinguistikoak xede hau ahalbideratzen ez badu ere, bere agerpen nabarmena ziurtatuko da.

7. Planak eta programak

Bizikidetza Araudia eta Bizikidetza Plana (I. eta II. ERANSKINAK)

Bizikidetza Araudia 2011-12 ikasturtean egin eta onartu zen, LOMCE arautegiaren garapenarekin berrikusi eta eguneratu zen eta IHPren I. ERANSKIN gisa ageri da.

Plana egiteko, indarrean dagoen legeria hartu da kontuan:

47/2010 FORU DEKRETUA, abuztuaren 23koa, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta betebeharrei eta bizikidetzari buruzkoa.

57/2014 FORU DEKRETUA, uztailaren 2koa, abuztuaren 23ko 47/2010 FORU DEKRETUA, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta betebeharrei eta bizikidetzari buruzkoa, aldatzen duena.

Bizikidetza Araudiaren bidez, ikastetxeetako bizikidetza arautu nahi da, ikaskuntza erraztuz eta hezkuntza komunitateko kide guztien arteko harreman positiboak sustatuz, betiere prestakuntzaren, prebentzioaren eta esku hartzearen bidez.

Abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretuan ezartzen den bezala, ikastetxeek honako hauek jasoko dituzte Bizikidetza Araudian:

a) Bizikidetza-arauak, eskubide eta betebeharren zehaztapen gisa. b) Bizikidetzaren

aurkako jokabideak eta aplikatu beharreko neurrien zehaztapena.

c) Bizikidetzarako oso kaltegarriak diren jokabideak eta aplikatu beharreko neurrien zehaztapena.

Era berean, Bizikidetza Araudian sartuko dira hezkuntza neurriak aplikatzeko prozedurak. Bizikidetza Araudia Ikastetxeko **Bizikidetza Planaren** barruan dago.

Eskolako **Bizikidetza Plana** 2011-2012 ikasturtean egin eta onartu zen, eta urtero eguneratzen eta egokitzen da **Urteko Zehaztapenean**, Bizikidetza Batzordearen barruan. Batzorde hori honako hauek osatzen dute: zuzendariak, irakasleen ordezkari batek, gurasoek Eskola Kontseiluan duten ordezkariak eta orientatzaileak. IHPren II.

ERANSKIN gisa agertzen da.

Plana egiteko, indarrean dagoen legeria hartu da kontuan:

204/2010 Foru Agindua, abenduaren 16koa, Hezkuntzako kontseilariarena, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako bizikidetza arautzen duena.

Ikastetxeak **bitartekaritza** eskainiko du prebentzio, konponbide eta erreparazio estrategia gisa, ikasleek elkarbizitza arauen aurka edo ikastetxeko bizikidetza orokorrerako oso kaltegarriak diren jokabideen ondorioz sortutako gatazkak konpontzeko. Bitartekaritza gatazkak konpontzeko metodo bat da, non pertsona batek gatazkan dauden bi alderen artean esku hartzen duen, bientzako akordio egoki bat lortzen laguntzeko. Bizikidetza Araudiak, 47/2010 Foru Dekretuaren 8. artikuluan jasotako bitartekaritza-prozesuak aldi berean aplikatzeko prozedura arautuko du, 15. eta 19. artikuluetan jasotako hezkuntza-neurriekin batera.

Bizikidetza Planaren Urteko Zehaztapenean hainbat dinamika ezartzen dira, ikasgelan modu sistematikoan egiten direnak, ikasleen, irakasleen eta Hezkuntza komunitatearen arteko bizikidetza errazteko (hezkuntza emozionala, gatazken konponbide baketsua (Komunikazio Ez Bortitza), aho-belarri dinamika, asanbladak, etab.).

Ikasturte hasiera bakoitzean, Urteko Programazio Orokorrean zehazten dira ikasturtean zehar ezarriko diren neurriak.

Tutoretza Plana (III. ERANSKINA)

Tutoretza Plana irakasleei orientabidea emateko dokumentua da, ikasleei prestakuntza prozesuan eta garapen pertsonalean lagun deizaiten. Bertan, ikasleekin, irakasleekin eta familiekin jarduteko jarraibideak ezartzen dira.

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren parte da, III. ERANSKIN gisa.

Urteko Programazio Orokorrak **Tutoretza Planaren zehaztapenak** ezarriko ditu ikasturte bakoitzerako.

Hezkuntza Orientazio Plana (IV. ERANSKINA)

66/2010 FORU DEKRETUA, urriaren 29koa, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan hezkuntza eta lanbide orientazioa arautzen duena.

Hezkuntza orientazioa eskola erakundearen kalitateko eta hobekuntzako elementu bat

da, ikasleen hezkuntza integrala eta pertsonalizatua lortzen laguntzea helburu duena, ikasleen aniztasunari erreparatuz, eta, horretarako, aholkularitza eta laguntza tekniko ematea ikasleei eta haien gurasoei edo legezko tutoreei, beren seme-alaben lehen hezitzaile nagusi gisa, ikastetxeei eta irakasleei.

Beraz, Hezkuntza Orientazio Plana da ikasleek etapako oinarrizko gaitasunak lor ditzaten laguntzeko ekintzak ezartzen dituen dokumentua, hala nola, ikasten ikasteko ohiturak eta estrategiak garatzen laguntzeko, trebetasun sozialak eta afektiboak lantzeko eta beren etorkizun akademiko eta profesionalari buruzko plangintza egiteko, arautzeko eta erabakiak hartzeko gai izateko, era autonomo eta arduratsuan.

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren parte da, IV. ERANSKIN gisa.

Urteko Programazio Orokorrak ikasturte bakoitzerako **Hezkuntza Orientazioko Planaren zehaztapenak** ezarriko ditu.

Aniztasunari Arreta Emateko Plana (V. ERANSKINA)

Aniztasunari Arreta Emateko Plana da ikastetxe batek diseinatu, hautatu eta praktikan jarritako jarduerak biltzen dituen dokumentua (curriculumaren egokitzapenak, antolaketa neurriak, laguntzak eta errefortzuak), ikasle guztien hezkuntza premia orokor eta partikularrei ahalik eta erantzun egokiena emateko.

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren parte da, V. ERANSKIN gisa.

Urteko Programazio Orokorrak **Aniztasunaren Arretarako Planaren zehaztapenak** ezarriko ditu ikasturte bakoitzerako.

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua

Proiektu honen lanketan murgilduta gaude, 2022-23ko ikasturtean onartzeko prozedura abian jartzeko asmotan.

PROEDUCAR-HEZIGARRI Programa

2018-2019 ikasturteaz geroztik, eskola PROEDUCAR-HEZIGARRI programaren parte da. Europako Gizarte Funtsaren programa bat da, eskola porrotaren eta eskola uzte goiztiarraren aurka borrokatzeko eta ikasle guztien hezkuntza inklusioa eta eskola arrakasta bultzatzeko.

Helburuak hauexek dira:

- Hezkuntza-arrakastarako baldintzak sortzea.
- Antolamendu eta metodologia aldaketak bultzatzea.
- Absentismoan eragina duten faktoreetan garaiz esku hartzea.
- Profesionalak sentsibilizatzea eta prestatzea.
- Ikastetxeko profesionalen koordinazioa eta talde-lana sustatzea. •
Ikastetxeen arteko sare-lana garatzea.
- Familiek ikastetxearen bizitzan benetan parte har dezaten eta ikastetxearen eta ingurunearen arteko koordinazioa sustatzea .
- Bizikidetzagiro positiboan aurrera egitea ikasgelan eta ikastetxean.

Hezkidetzeta Plana (SKOLAE programa)

Eskola Hezkidetzeta Plana osatzen ari da SKOLAE programaren bitartez. Honekin, sortuko diren aukera aniztasunaren eta berdintasun eskubidearen bitartez, genero baldintzatzailerik gabeko eskola bat sortu nahi dugu, gure ikasleak libre izan daitezten.

Irakasleen formakuntza

Zumadia eskolako hezkuntza taldeak prestakuntza bateratua, etengabea eta iraunkorra jasotzearen alde egiten du, eta gure eskola proiektuan parte hartzen duten profesional guztiek prestakuntza horri atxiki behar diote. Horrela, proiektuari koherentzia eta jarraipena ematea lortzen dugu.

8. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren ebaluazioa

Hezkuntza proiektu honetan ezarritako helburuen arabera (Urteko Programazio Orokorrean zehatzago zehazten direnak), aurrerapen-adierazle batzuk aurkezten ditugu, gure proposamenaren arrakasta-maila identifikatzen laguntzeko:

- Hezkuntza-komunitate osoaren asebetetze-maila hainbat alderdiri dagokienez: hezkuntza eskaintzaren kalitatea, ikastetxeko ongizate-maila, etab.
- Hezkuntza-komunitatearen parte-hartze maila.
- Oinarrizko gaitasunen lorpen-maila, bereziki, hizkuntza behikularrari dagozkionak.
- Ikasleen arteko bizikidetza-maila.
- Ingurune fisikoarekin eta sozialarekin lotutako proiektuetan eskolak duen parte-hartze maila.

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua aldian-aldian berrikusi eta eguneratuko da. Irakasleek eta Eskola Kontseiluan ordezkaturik dagoen hezkuntza komunitateak parte hartuko dute. Urteko Programazio Orokorra urteko Memorian ebaluatuko da.